

Fronteras Unidas

Kolonbiar eta ekuadortarren lokailu

Ekuadorrek Kolonbiarekin muga egiten duen lurraldean, herrialde batekoak eta bestekoak elkarrekin bizi dira. Bertan, Fronteras Unidas bezalako erakundeei esker, Ekuadorren integratzea errazago egiten zaie Kolonbiako sufrimendutik ihesi joandako emakumeei.

Testua eta argazkiak

ROBERTO SCARCIA



Ezkerreko irudian, Fanny, Fronteras Unidas elkartearen koordinatzailea. Lan munduan integratzeko elkartetik laguntzen dituzten emakumeetako bi dira beste irudietan ageri direnak.

GURE GARAI BIRTUALEAN, harreman pertsonalak eta profesionalak ordenagailuen bitartez gauzatzen dira geroz eta sarriago. Baina zenbait lekutan, oraindik naturak berak ezartzen ditu erritmoa eta pistak, jendeak bat egiteko. Zenbait lekutan, erliebea eta errekak erreferentzia saihestezinak dira, ibilbideak eta bideak markatzeko. Quito, Ekuadorreko Errepublikako hiriburua, eta Lago Agrio, Kolonbiarekin mugan dagoen Sucumbios probintziako hiriburu ekuadortarra lotzen dituen errepideak andetar-amazoniar naturaren bideei jarraitzen die eta ibaiak sigisaga eginez doaz mendien artean. Papayacta ibaiari jarraitzen dio errepideak, izen bereko bailaran ekialderantz. Antisana sumendiaren itzal elurtuaren azpitik igaro ostean,

Fronteras Unidas elkarteak ekuadortar eta kolonbiar emakumeak bildu eta Lago Agrion mikroenpresak sortzen ditu

asfaltoak Quijos ibaiarekin bat egiten duen bidari jarraitzen dio, eta landare tropikalez estalitako mendixka latzez inguratuta, iragan ezaguneko Aguarico ibaiarekin egiten du bat. Bere ipar-ertzean sortzen da Lago Agrio hiria.

Hutsaren pare izango litzateke esatea Amazoniako arroa ibaiak osatzen duten orno-egituraren inguruan eraikitzen dela, edo ibaiok eskualde osoaren bizia daramaten zainak direla. Aitzitik, egia da Hego Amerikako eremu honetan garatzen diren giza jardueretan ibaiak direla oinarri.

Plan kutsatzailea

Egoera hori kontuan hartuta, ongi ulertuko dugu Kolonbiako Planak eragindako kalte sakonetako bat. Hain zuzen ere, plan horre-

kin kolonbiar armadaren fumigazioak eguneroko bihurtu dira ibaien ertzean eta haiei esker bizi diren mugako komunitate guztietan. Fumigatzerakoan ura kutsatu egiten da, eta nekazaritza ustiaketa txikiak eta jendea lekuz aldatzea beste erremediorik ez dago. “Soroek ez dute ekoizten”, azaldu digu Rosario andreak, Lago Agrion errefuxiatutako kolonbiarrak, bertatik bertara bizi baititu fumigazioaren ondorioak. “Lehen, esaterako, juka tuberkulari azala kentzean kolore zurixka zuen —kontatu du—, baina orain orban beltzak ditu”.

Kolonbiako Planaren fumigazioek Amazonia ipar-mendebaldeko arroko hezurak hautsi eta zainak pozoitu dituzte. Daisy andreak, Ekuadorren errefuxiatutako kolonbiarrak, ongi daki hori zer den. Kolonbiako Planaren ondorioz bere lurreen gatazkak okerrera egin zuten, Daisyren familiak dragatzeko makina bat erosi behar izan zuen eskualdeko ibaietan urrea bilatzeko. “Puchuchoa ibaian hasi ginen, eta alokairua eta bizitzeko behar genuen janaria ordaindu ahal izan genituen. Baina ibaia oso ustiatura zegoen eta Tena ibaira alde egin behar izan genuen, urre bilatzaileen aurka zeuden indigenek hondotik urrea ateratzeko eta lehertzeko makina lapurtu eta hondatu ziguten arte”. Senarrak urrea bilatzen jarraitu zuen erretilu batez, baina ez zen aski familia osoarentzat eta Daisy andreak Lago Agrio hirira jo behar izan zuen bizimodua egiteko. Daisy Ekuadorrerantz joan zen Ekuadorreko Errefuxiatu eta Migratzaileentzako Jesuiten Zerbitzuaren (SJRM) laguntzaz, beste hainbat kolonbiar emakume errefuxiatuekin batera, Kolonbiako mugan mikro-entresak sortzeko. Lago



Sutagar
20 URTE

**20. URTEBETETZE
OSPAKIZUN BIRA**

AZAROAK 1 ARRANGOITZE
AZAROAK 15 GASTEIZ AZKENA
AZAROAK 29 BERMEO KAFE ANTZOKIA
ABENDUAK 19 L'HOSPITALET SALAMANDRA
ABENDUAK 26 DURANGO PLATERUENA

kontratazioa: 619 11 69 74
sutagar.com

Agrion denda mugikor txikia sortzea du amets, fruitu-zukuak saltzeko. Beste hainbat lagunek bezala, atzean utzi nahi du Kolonbiako gerran bizitako sufrimendua eta Ekuadorren integratu nahi du. Daisyk zukuekin bezala, mugako beste emakume batzuek ere integratzeko hainbat ilusio dute: Olgak, adibidez, garbitoki bat sortu nahi du; Margaritak bere kolonbiar tamalak saltzea du amets; eta Fannyk plastikoak birziklatzeko enpresatxoa mar-txan jarri nahi du berriro.

Fanny irakaslea da, Ekuadorrekoa da jatorriz eta urteak daramatza Amazonia ekialdeko komunitateetan lanean. Uste osoa du jendearen antolaketa gaitasunean. Gogoa du 1993an Union Lojana herrian mendi-tan barrena zegoen eskola batean irakasle aritu zela. “Belaunetarainoko lokatza genuen, baina jendea animatzea lortu nuen, agintariekin negoziatzen erakutsi nien eta eskolaraino bidea egin ahal izan genuen”. Fanny Fronteras Unidas (Muga Batuak) elkartearen koordinatzailea da egun, SJRMk lagunduta ekuadortar eta kolonbiar emakumeak bildu eta Lago Agrion mikro-enpresak sortzen dituzte. Plastikoak birziklatzeko negozio txiki bat zuen, “Lehen Hezkuntzako irakasle soldata ez zelako aski”. Dioenez, garrantzitsua da kolonbiar eta ekuadortar emakumeen artean ekonomikoki integratzeko eremuak sortzea.



San Miguelgo nazioarteko zubiak izen bereko ibaiaren inguratzen du. Kolonbia eta Ekuador arteko muga ezartzen du ibaiak, Lago Agriotik iparraldera.

Amazoniako “muga” beti izan da topaketarako, trukerako, mestizajerako... eta gatatzarako lekua

Bi herrien arteko harremanak

Kanpoko eraginak eta indarkeriari lotutako eragileak sartzen ez badira, Fannyk ziurtatu du ez dagoela inolako arazorik kolonbiarren eta ekuadortarren artean. Gaiaz bada-ki gainera, irakasle den Lehen Hezkuntzako eskolan 460 ikasletik 160 kolonbiarrak baitira. Halaber, Fronteras Unidaseko emakumeak oso integratuta daude, eta horietako asko ekuadortarrekin ezkondu dira eta Ekuadorren jaio-tako seme-alabak

dituzte. Fannyk gaineratu du ekainaren 20an, Kolonbiako independentziaren egunean, Lago Agrion jaia ospatzen dutela, mugako hirian kolonbiar desplazatu asko integratu zirelako.

Kolonbiako mugan gehienek uste dute Quiton ez bezala, errazagoa dela kolonbiarrak Ekuadorren integratzea.

Inguruan duen errealitatearen aurkezpena amaitzeko, atentzioa eman digun baieztapen hau egin du Fannyk: “Zubiek bereizitako jende bera gara”. Fronteras Unidas erakundearen koordinatzailea San Miguelgo nazioarteko zubiaz ari da, izen bereko ibaiaren gainean, Kolonbia eta

Ekuador arteko muga ezartzen duena, Lago Agriotik iparraldera kilometro gutxira.

Zubiek, hau da, bi lurralde lotzeko gizakiek egindako eraikuntzek, eskualdeak bereizten dituzte. Ildo horretan, gogoeta egin beharko genuke. Izan ere, Amazoniako arloan “muga” kontzeptua errealitateetik oso urrun bizi zen jendeak sortu zuela dirudi. Antzina espainiar inperioaren erregeordetza eta kapitaintzen hiriburuetan bizi ziren politikari agintari-ek zehaztu zituzten mugak. Geroago, errepublika independenteetako presidenteen jauregi-tako bizilagunek egin zuten. Baina Amazoniako arloan bizi diren komunitateentzat, eskualdea zeharkatzen duten ibai-ek markatutako geografia eta giza eremua da hau. Izan ere, Amazoniako “muga” beti izan da topaketarako, trukerako, mestizajerako... eta gatatzarako lekua. Hain zuzen, hala izaten jarraitu-ko du, Kolonbiako Planak edo Amazoniako latitude hauetako errealitateetik urrun asmatu-tako beste plan edo proiekturen batek berriro ibaiak kutsatu, komunitateak desplazatu eta gizartea hondatu arte. ■

